



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA

2014

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren epaitzen berri zabaltzea	3
3. Alde pertsonalak eta lan karga.....	8
4. Alde materialak eta informatikoak	10
5. Aurkeztutako erreklamazioak	11
6. Ebatzitako erreklamazioak.....	12
7. Ebazteke diren erreklamazioak	14
8. Epaitzak zein aldetarantz eman diren	15
9. Auzitegiaren irizpideak.....	19
10. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak.....	19
11. Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak konparatuz eginiko azterketa.....	21
12. Eskatutako irizpenak	23
13. Ondorioak.....	24

1. SARRERA

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurtsogileen eskubideak era eraginkorren babesteko printzipioaren adierazpena da, baina modu independentean funtzionatzen du. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurri buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboaren Ebazteko Araudian.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren urtero aurkeztutako memoria Udaltzako kide guztiei. Memoria horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen memoria Udalean aurkeztuko da, eta 2014. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2014ko abenduaren 31n idatzitako memorian 2014. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da eta azken lau urte hauetako hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2011-2014 epean emandako epaitzek dakarten erabakiak, eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan-karga.

2014an aipatutako jarduera hobetzen jarraitu dugu. Izan ere, jarduera hori da auzitegiaren oinarritzeko xede eta eginkizuna. Jasotako grafikoetan ikus daitekeenez, 2014an bilakaera positiboa izan da; izan ere, eta gero ikusiko dugun bezala, erreklamazio asko ebatzi dira. Hala erakusten dute *Análisis de*

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales txosteneko datuek. Txosten hori Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek aurkeztu zuen, eta aipatutako datuak sartu dira, Donostiako Udalak haien berri izan dezan.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraituz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, honako hauek oinarri dituzten erreklamazioak ezagutzeari eta ebazteari jarri zaio arreta batez ere: kudeaketako egintzak, likidaziokoak, zerga-bilketakoak eta zerga-ikuskaritzakoak; baita udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarreraren nahitaezko zerga-bilketakoak (bereziki Udal zehapenak jartzen dira, halakoetan) eta zerga-ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

2. DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA

Zergen arloko berraztertze errekurtsoak ezesteko eman diren epaitzei dagokienez, zerga mota bakoitzean eman diren epaitzen berri eman da. Haien espezifikotasunaren arabera aukeratu dira epaitzak.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

490. epaitza: ezestea. Zorren agindua eten zen, Foru Aldundian jaraunspeneko ondasunen zatiketa koadernoaren eskritura aurkeztean.

690 epaitza: ezestea. Errekarguaren aplikazioak ez du indargabetzen ohiko etxebizitza gisa ez hartzeko udal erabakia.

691. epaitza: baiestea. 2013. urtean uda igarotzeko bizilekutzat hartzen da, eta errekaruaren salbuespena onartzen da.

704. epaitza: onartezina, garaiz kanpo dagoelako.

705. epaitza: baiestea. uda igarotzeko bizilekutzat hartzen da 2013. urtean, eta errekaruaren salbuespena onartzen da.

800. epaitza: baiestea. uda igarotzeko bizilekutzat hartzen da 2013. urtean, eta errekaruaren salbuespena onartzen da.

801. epaitza: baiestea. uda igarotzeko bizilekutzat hartzen da 2013. urtean, eta errekaruaren salbuespena onartzen da.

927. epaitza: baiestea. uda igarotzeko bizilekutzat hartzen da 2013. urtean, eta errekaruaren salbuespena onartzen da.

928 epaitza: baiestea. Aurkeztutako kontsumoak ikusita, onar daiteke etxebizitzaren gutxieneko erabilera egin zela eta salbuespena aplikatzea dagokiola.

929. epaitza: ezestea. Finka ez da ohiko bizilekutzat hartzen, eta ez da ziurtagiririk aurkeztu etxebizitza salbuespena onartzeko kasuetakoren batean dagoenik frogatzeko.

931. epaitza: onartezina, garaiz kanpo dagoelako.

932. epaitza: ezestea. Aurkeztutako kontsumoak ikusita, 2013ko Ondasun Higiezinaren Zergan % 50eko errekarua duen higiezin bat dela irizten dio.

1013. epaitza: onartezina, garaiz kanpo dagoelako.

1027. epaitza: ezestea. Errekargua eta interesak likidatzea egokia da, OHZ eta haren konpentsazioa ez ordaintzeagatik horren aldeko kreditu batekin.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

1128. epaitza: premiamendua ezesten du. Kontsumoak ez dira nahikoak salbuespena emateko, eta alegazioak ez daude aurka egiteko arrazoi tasatuen barruan.

1131. epaitza: baiestea. Katastroko akatsa. Foru Aldundiak errekurtsioa onetsi, eta Udalari jakinarazi zion. Agindu gabeko ordainagirien itzulketa partziala agintzen da.

1132. epaitza: ezestea. Katastroko akatsa.

Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko zerga

592. epaitza: zatika baiestea. Subjektu pasiboak zerga oinarria aldatzeko eskubidea du, benetan gauzatutako aurrekontuaren arabera.

703. epaitza: baiestea. Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazi du lanek ez zutela behar ez obra lizentziarik ez alde aurreko jakinarazpenik.

933. epaitza: bahitura baiestea. Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko zergaren likidazioa agintzeko epea lana amaitzen den unetik hasten da.

1126. epaitza: ezestea. Lana egin zen, eta lan horretarako lege zuzentzia hori eskuratu behar zen.

Ekonomia jardueren gaineko zerga.

593. epaitza: baiestea. Salbuespena onartzen da, Diputazioaren Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren txostena oinarri hartuta.

594. epaitza: baiestea. Salbuespena onartzen da, Udal Zergak Kudeatzeko Diputazioaren Zerbitzuaren txostena oinarri hartuta.

Ibilgailuen gaineko zerga.

90. epaitza: ezestea. Besteak beste, ibilgailua zirkulatzeko moduan ez egoteagatik bahitura baliogabetzea ezesten du; izan ere, ibilgailua erabiltzeak edo ez erabiltzeak ez dio eragiten zergari, Trafiko Zuzendaritzan ibilgailuaren baja izapidetu ez zelako.

Balio Gehikuntzaren gaineko zerga.

89. epaitza: ezestea. Besteak beste, subjektu pasiboa zergadun gisa edo ordezkotzat hartzea, lege erreserbako printzipioaren eraginpean dagoelako.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

91. epaitza: ezestea. Sortzapena heriotzarekin sortzen da herentzietan, eta transmisio eskrituraren sinadurarekin salmentetan.

93. epaitza: ezestea. Sortzapena eragile bakoitzaren heriotzarekin gertatzen da herentzietan, eta hainbat likidazio egiten dira, daten eta ehunekoen arabera.

289. epaitza: baiestea. Ordainagiriak berresten dira, zerga likidatzeko oinarri datuak berrikusita eta Foru Aldundiak segregazioarekin egindako aldaketaren aurrean.

291. epaitza: baiestea. Salbuespena onartzeko eskakizunak betetzen ditu.

702. epaitza: uziak prozesutik kanpo betetzea, likidazioa baliogabetzen da.

930. epaitza: ezestea. Interesdunak ez du etxebizitza horretan bizitzearen eskakizuna betetzen, eskatzen duen % 50eko hobaria aplikatu diezaion.

1124. epaitza: ezestea. Eskubide errealean transmisioa likidatzeko formaren gaineko balio gehikuntza ezesten du.

Jabariaren okupazio tasa

493. epaitza: ezestea. Tasa ordaintzeko betebeharra sortzen duen erabileran, kalkuluak hesiak jabari publikoko lurzoruetan uzten diren egunetik egiten dira.

689. epaitza: agindu aldi bat onesten du, eta gainerakoa ezesten du zerga egitatea gauzatu delako, bide publikoaren erabilera pribatuaren egiaztapen tekniko egin baita, eta hesiekin onura partikularra eskuratu delako.

1029. epaitza: baiestea. Aurrealdea eraberritzeagatik % 50eko hobaria onartzen du.

1125. epaitza: ezestea. Zergapeko azalera oinezkoentzako guneko publikoa da.

TAOren tasa.

390. epaitza: uziak prozesutik kanpo betetzea. Egiaztatu da egoiliarren TAO bereizgarria 2013ko abuztuaren 29an eman zela eta likidazioa ordainduta dagoela. Mugikortasun departamentua itzulketa izapidetzen ari da.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

693. epaitza: ezestea. Egoiliarren TAO bereizlea eskatu zen, data hori alde batera utzita, tasa data berean sortzen da.

Ur eta zaborren tasa.

189. epaitza: ezestea. Sarrera desegokiak itzultzeko prozedura sarrera desegokitzat hartzen direnean izapidetu behar dira, Zergei buruzko Arau Orokorren 228. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorrira; ordaintzea eskatzen dituen ordainagiriak ekintza administratibo irmoak eta onartuak dira.

290. epaitza. ezestea. Kontagailuak ez zituen irakurketak ematen; ordainagiriaren fakturazioa, aurreko irakurketaz geroztik egindako kontsumoaren arabera egiten da, eta aurreko irakurketarik ez badago baina hornidura izan bada, ordaintzeke dauden hornidurak likidatu daitezke.

292. epaitza: baiestea. Finka berean bi aldiz likidatu da zaborren tasa, behin etxeko tarifarekin eta beste behin jarduera tarifarekin.

296. epaitza: ezestea. Kontagailuak ez zituen irakurketak ematen, eta ordainagiriaren fakturazioa aurreko irakurketaren arabera egin behar da, Araudiaren 78. artikulua ezartzen duen moduan.

391. epaitza: ezestea. Zerga zor baten zenbateko bat itzultzea eskatzen da, desegokia delako, baina tasa baten zerga kuota beste zerga kuota mota batez kalkulatzeko lortu nahi da, likidazio irmo eta onetsi batean.

488. epaitza: baiestea, baldin eta % 50eko hobariaren aplikazioa onartzeko eskakizunak betetzen badira.

706. epaitza: onartezina, garaiz kanpo dagoelako.

Garabiaren tasa.

590. epaitza: ezestea. Garabiaren tasa itzultzea ezesten da. Baieztatu da arau-haustea egin zela eta garabiaren tasaren zerga egitatea gauzatu zela, eta horrek ez du loturarik zigorra prozedura arrazoiengatik baliogabetzeko aukerarekin.

591. epaitza: garabiaren tasa itzultzea ezesten du. Baieztatu da arau-haustea egin zela eta garabiaren tasaren zerga egitatea gauzatu zela.

1130. epaitza: garabiaren tasa itzultzea ezesten du. Baieztatu da arau-haustea egin zela eta garabiaren tasaren zerga egitatea gauzatu zela.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Irekitzeko lizentziaren tasa

1058. epaitza: ezestea. Lizentzia eskatu zen, beraz, tasa horren zerga egitatea gauzatu da.

Zibismoko, ingurumeneko eta hirigintzako zehapenak

589. epaitza: hirigintza zehapena ezesten du. Erreklamatzailerak ezin dio aurka egin zehapenaren ezarpen jatorriari, zehapena irmoa delako eta kobratze prozedura epaimahai horren eskumena delako.

692. epaitza: zibismoko zigorra ezesten du. Ibilgailu bat kendu zen bide publikotik abandonatuta zegoelako, zehapena jarri zen, eta zehapena exekutatzeko prozedura izapidetzen ari da.

799. epaitza: ezestea. Bide publikoan estupefazianteak kontsumitzeagatik zibismoko zehapenaren saldoak bahitzeko diligenza ezesten da. Zigor hori larrizat tipifikatuta dago. Ez da egiaztatu bahitura baten aurka egin diezaiokeen legezko arrazoirik.

1123. epaitza: onartezina, hirigintza zehapena garaiz kanpo dagoelako.

1127. epaitza: ingurumeneko zehapenagatik bahitura ezesten du. Alegazioak ez daude bahiturari aurka egiteko arrazoi tasatuen barruan.

3. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA

Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofia Arana Landin eta Juan Santos Lopez Anton, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.

Auzitegiko idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, lehen Finantza Zuzendaritzaren Zerbitzu Juridikoaren Burutza zenaren langile funtzionarioak dira. Orain berrantolatu da eta bere barnean biltzen ditu Ondare eta Kontratazio Zerbitzuaren Burutza, administrari bat, monitorizatutako

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal


Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián


espedienteen arduraduna eta Zerbitzuko Burua, aldi berean Epaimahaiko Idazkaria dena.

Zerbitzuburuak ondare eta kontratazio gaietan jarduten duenez, Epaimahaiarekiko bilerak hilerokoak dira orain.

Auzitegiaren lan-karga auzitegiko idazkaritzak darama. Urte hauetako guztietako maila bertsuan dirau lanak. Izan ere, lan propioak ez ezik (erreklamazioak izapidetzea, adibidez), epaitza guztiak idatzi ere egiten dira, baita zerga-ordenantzak aldatzeko proiektuei buruzko txostenak ere. Hileroko saio bakoitzerako 90 epaitza prestatzen dira, Epaimahaikide bakoitzak 30, zehapenen betearazte prozedurei buruzkoak eta, gainera, zergen inguruan hilabetean egindako erreklamazioei buruzkoak, oro har hiru zerga epaitza hileroko.

Donostiako erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 36. artikulua sei hilabeteko gehieneko epea finkatu du erreklamazioak ebazteko, eta indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorrak prozedura horretarako gehienez urtebeteko epea ezarri du.





4. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak Udaletxean jarraitzen du, eta bertan egiten dira hamabostean behingo bilerak.

Auzitegiko kideek ordenagailutik eskura ditzakete zirkulazioko zehapenen erreklamazioen espediente osoak.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (erreklamazio ekonomiko administratiboak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordura arte, erreklamazioak paperean aurkezteko prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal-webgunean ageri den informazioaz den bezainbatean, dagoeneko ageri dira erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

5. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio «*udal eskumeneoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea*».

Administrazioarekiko diru-erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judizialera iristeko behar duten tresna dela.

2012an, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte-dataren arabera sailkatu ditugu.

2014an aurkeztutako erreklamazioak	
Zergak	44
Zehapenetako bilketa	1160
Zehapenetakoak ez direnak	1
Guztira	1205

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Zergak	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	19
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	1
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	4
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	1
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	4
Zerbitzu-Tasa	8
Baimenen Tasa	1
Jabariaren tasa	4
TAO tasa	2
Guztira	44

Zehapenetakoak ez diren beste kontzeptu batzuk	
ABALA	1

Zehapenetako bilketa	
Zirkulazioko zehapenak	1155
Gizabideko zehapenak	2
Ingurumeneko zehapena	1
Hirigintzako zehapenak	2
Guztira	1160

6. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK


Alde horretatik, zergen arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoan, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga-egitateei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru-sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.

Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaetzko diru-bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga gaietako berehalakotasun hori egiaztatu da: 2014an 44 zerga erreklamazio aurkeztu ziren eta 50 epai eman ziren. Epaietatik 9 aurreko urtetik ebazteke zeuden eta abenduaren 31n 3 erreklamazio geratzen ziren ebazteke, hilabete horren amaieran aurkeztuak.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen zortzi urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 10.177 erreklamazioetatik, 2014ko abenduaren 31n, aurkeztutako erreklamazioen %84,20 zegoen ebatzita.

1.608 erreklamazio zeuden ebazteke, hau da, aurkeztutako erreklamazioen %15,80.



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Grafiko horretatik ondorioztatzen da Auzitegiaren lana beti izapidetze- eta ebazte-erritmo bertsuan egin dela.

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari kontu eskatutako Auzitegiaren epaitzekiko gatazkei dagokienez, honako datu hauek eman dira:

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetan ebatzitakoak

2005-2014

Epaitza baietsleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren erabakia baliogabetzen dutenak)	9
Zatika baietsitako epaitzak	6
Epaitza ezetsleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren erabakia berresten dutenak)	22
Atzera eginak	4
Auziak prozesutik kanpo betetzea	4
EZ-ONARTUAK	2
Ebazteke direnak	8


7. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 2.741 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 1.536 ziren 2013. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 1.205 ziren 2014an aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio horietatik, 1.133 erreklamazio ebatzi dira 2014an, eta 2014ko abenduaren 31n, 1.608 erreklamazio daude ebazteko.

Guztizko 1.608 erreklamazio horietatik, 442 espediente zeuden Isun Zerbitzuak izapidetzeke (kudeaketa-organo horrek bidaltzen du espediente osoa auzitegira), eta 1.166 espediente zeuden izapidetuta eta auzitegiko idazkaritzari entregatuta, analizatzeko eta hartu beharreko ebazpena idazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2014ko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 10.177 erreklamazioetatik, 8.569 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen % 84,20k badu epaitza.



8. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN

Grafiko hauetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: baietsiak, zati batean baietsiak, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da.

Zerga arloko epaitzak zein aldetarantz eman diren				
	Ezestea	Baiestea	Zati bat baiestea	Guztira
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	-	1	-	1
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	10	8	-	18
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	1	2	1	4
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	1	-	-	1
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	5	3	-	8
Jabari publikoa	2	1	1	4
Zerbitzu Tasak	8	2	0	10
Baimenen Tasak	1	-	-	1
TAO Tasak	1	1	-	2
Guztira	29	18	2	49

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal


Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Zehapenak kobratzeari dagozkion epaitzak zein aldetarantz eman diren			
	Premiamendua	Bahitura	Guztira
Baiestea	35	5	40
Zati bat baiestea	4	20	24
Ezestea	934	80	1014
Onartezina	3	2	5
Guztira	976	107	1083

Zergakoak ez diren kontzeptuetan epaitzak zein aldetarantz eman diren				
	Ezetsi	Zatika baietsi	Onartezina	Guztira
Abala	1	-	-	1

IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06



Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru-bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.




Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal


Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaratzen dira.





IFK/C
IF
P2007
400A/
TEE/R
EL
01200
697
8625n
II2005
-06



9. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebatztean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, ratio decidendi berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen araberakoak direla baiteritzogu.

Udala ez da ados egon Epaitegiaren epaitza batean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergen ekitaldi bateko ordainagiri bat presribatu zela adieraztearekin. Gatazkaren gaiaren kopurua handia zela eta, Udalak epaitza udal interesen kontrakoa dela adierazi du eta Finantza Zuzendaritzak egoki jo zuen Justizia Epaitegietan aurkaratzea, Lege Aholkularitzak irizpide hori berretsi zuen eta Udalbatzak onartu zuen.

2015eko ekainaren 26an eman zuen epaia Epaitegiak, Udalaren alde.

10. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK

Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesdunek erabaki dutelako bide hori hartzea, berraztertze errekurtsoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertze errekurtsoak ebatzen dituzten udal-organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal-administrazioarekiko diru erreklamazio guztiguztiak berraztertze errekurtsoa ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal-zergenak.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal


Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Lan-kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga-erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal-zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Eraikinen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, Zaborrak Biltzeagatik Tasa, Jabaria aldamiorekin okupatzeagatik Tasa; eta Garabi Tasa.

Emandako epaitzen diru-ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamatuak zenbatekoen ezeste-maila bertsuan dira.

	2011ko epaitzak	2012ko epaitzak	2013ko epaitzak	2014ko epaitzak
Erreklamatuak	794.684,33 €	909.318,87 €	1.058.049,12 €	544.725,69 €
Baietsiak	67.088,39 €	87.704,90 €	212.536,74 €	117.464,01 €



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

11. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak urtez urte egiten ditu Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek, “*Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales*” izenburuko txostenean.

Ebazte-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebatziak / urteko sartuak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

Eraginkortasun-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak / urteko guztiak).

Emaitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

Ebazteke dagoenaren Tasak neurtzen du zenbat urte beharko lirartekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduarien 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

Ebazte-abiadurak neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK

	ERREKLAMAZIOAK	2014	2013	2012	2011
1	Urtarrilaren 1ean ebazteke	1.536	1.726	921	1.247
2	Urtean aurkeztuak	1.205	1.198	2.038	966
3	Urteko guztizkoa (1+2)	2.741	2.924	2.959	2.213
4	Urtean ebatziak	1.133	1.388	1.233	1.292
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 -4)	1.608	1.536	1.726	921

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

Urtea	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Abiadura
2011	133,75	58,38	0,71	1,71
2012	60,50	41,67	1,40	2,40
2013	115,86	47,47	1,11	2,11
2014	94,02	41,34	1,42	2,42

2013ko ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2013	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Ebazte-abiadura
Sevilla	82,33	25,36	2,94	3,94
Madril	134,46	57,52	0,74	1,74
Malaga	116,36	80,23	0,25	1,25
Donostia	115,86	47,47	1,11	2,11
Valentzia	79,09	57,18	0,75	1,75
Bartzelona	70,53	63,33	0,58	1,58
Las Palmas	27,08	18,51	4,40	5,40
Bilbo	95,84	77,03	0,30	1,30

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren lean udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

**AZTERKETA KONPARATUA:
erreklamazioak, 1.000 biztanleko**

	2013	2012	2011	2010
	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle
Sevilla	7,36	9,31	9,74	5,93
Madril	2,74	3,11	17,55	23,88
Malaga	1,26	1,40	1,26	1,07
Donostia	6,42	10,93	5,21	6,29
Valentzia	1,33	0,71	0,84	0,57
Bartzelona	0,27	0,11	0,13	0,23
Las Palmas	1,13	0,61	0,86	0,65
Bilbo	3,86	3,10	3,47	5,27

12. ESKATUTAKO IRIZPENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.b) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga-ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2014ko irailaren 10ean, ogasuneko zinegotzi ordezkariak zerga-ordenantzen proiektuei buruzko irizpena eskatu zion Auzitegiari, betiere 2014rako zerga-ordenantzen aldaketarekin.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxe 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Proposamenek zergapetze-Tasa aldatzea edo zerga-kuotak aldatzea dakarte, 2014ko ekitaldirako zerrendatzen diren zerga hauek direla eta:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Eraikinen gaineko Zerga, Zaborrak Biltzeagatiko Tasak, Ur-horniduragatiko Tasak, Udal Jabari Publikoa Erabiltzeagatiko Tasak, telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeagatiko Tasak, Bide Publikotik Ibilgailuak Kentzeagatiko Tasak, Bide Publikoetan Ibilgailuak Aparkatzeagatiko Tasak, Zerbitzuak emateagatiko Tasak, Hirigintzako Lizentziak eta Zerbitzuak emateagatiko Tasak, Irekiera Lizentziak emateagatiko Tasak, Kaleen Sailkapena horien Kategoriaren arabera.

Auzitegiak, 2014ko irailaren 11n egindako bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Proposamenen aldeko irizpenak izan ziren.

13. ONDORIOAK

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lortu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna izatea, zuzenbideko profesionalek esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerreari antzemanaz.

2014an eginiko estatistiketan, bere horretan dirau datu honek: gatazka gai masibo izaten jarraitzen dute zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte-prozeduren erreklamazioek. Bestetik, Gizabideari buruzko Ordenantzako zehapenen aurkako erreklamazioak hasi dira.

Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudia eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretua (2007ko ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onartu zirela eta.

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesadunek baliabide informatikoak erabili ahal izango lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostia, 201eko uztailaren 7a.

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Sin.: Maite Amunarriz Yeregui.

Sin.: Javier Herrero Aparicio.